

KOSTUEN EGITURA

Kostu Finkoak (Urteko)

Kategoria	Zenbatekoa (€)	Oharrak
Webgune eta hosting	300	Urteko mantenua
Biltegi / Alokairua	1.200	100 €/hilabete
Administrazio-gastuak	2.000	Kontabilitatea, aseguruak, bulegoa
Ekipamenduaren amortizazioa	5.000	Makineria, soldadura-ekipoa
Gastu legal / administratiboak	1.000	Baimenak, lizitazio-txostenak
GUZTIRA	9.500 €	

Kostu finkoak dira enpresak urtero izaten dituen gastuak, proiektu kopurua edozein dela ere. Hauek dira enpresak funtzionatzeko beti izan beharreko oinarrizko gastuak, hala nola webgunearen mantentzea, biltegiaren alokairua, administrazio-gastuak (kontabilitatea, aseguruak) eta ekipamenduaren amortizazioa (makineriaren erabileragatik duen balio-galera).

Kostu Aldakorrak – Materialak

Materiala	Prezioa	Oharrak
HDPE geomembrana	33 €/m ²	0,75 mm
Geotextil babeslea	4 €/m ²	200–450 g/m ²
Artilea	DOAN	Baserritarrek emana
Pneumatikoak	DOAN	Birziklatua
Beste material naturalak	≈ 500 €/proiektu	Harriak, landareak

Materialen kostuak proiektu bakoitzaren tamainaren eta ezaugarrien arabera aldatzen dira. HDPE geomembrana eta geotextila material espezifikoak dira, eta hauen prezioa metro koadroko kalkulatu da. Artilea eta pneumatikoak dohainik lortzen dira (birziklatuta eta tokiko baserritarren eskutik), eta horrek proiektuaren kostua murrizten du. Beste material naturalak (harriak, landareak) proiektu bakoitzean erabiltzen diren kantitatearen arabera dira.

Kostu Aldakorrak – Lana (Urteko)

Lanpostua	Zenbatekoa (€)	Oharrak
Ingeniari Mekanikoa	30.000	Urteko soldata
Obra-gainbegiralea	20.584,80	Urteko soldata
Eskulana (3 langile)	45.000	15.000 €/langile
GUZTIRA	95.584,80 €	

Lan-kostuak enpresan urte osoan lan egiten duten langileei ordaintzen zaizkien soldatak dira. Hauek proiektu kopuruaren arabera alda daitezke, baina dokumentu honetan urteko estimazio bat aurkezten da. Ingeniari mekanikoak, obra-gainbegiraleak eta eskulana osatzen dute taldea, eta haien soldatek enpresaren kostu handiena suposatzen dute.

Kostu Aldakorrak – Ekipamendua (Urteko)

Ekipamendua	Zenbatekoa (€)	Oharrak
Hondeamakinaren alokairua	6.000	Proiektu guztietarako
Trinkotze-makinak	3.000	Proiektu guztietarako
Garraio-ibilgailuak	3.000	Materialen garraioa
HDPE soldadura-ekipoa	1.000	Mantentzea
GUZTIRA	13.000 €	

Ekipamenduaren kostuak proiektuak egiteko behar diren makinak alokatzeagatik edo mantentzeagatik sortzen dira. Hondeamakina, trinkotze-makinak, garraio-ibilgailuak eta HDPE soldadura-ekipoa proiektu guztietan erabiltzen dira, eta hauen alokairuak edo mantentzeak enpresari gastu aldakorrak eragiten dizkio.

Beste Kostu Aldakorrak

Kategoria	Zenbatekoa (€)	Oharrak
Garraioa	4.000	Materialak proiektu-gunera
Biltegitratzea	1.000	Materialak babestu
Administrazioa	3.000	Baimenak, aseguruak
Mantentze-materialak	2.000	Konponketak
GUZTIRA	10.000 €	

Kategoria honetan proiektuak egiteko beharrezkoak diren beste gastu batzuk sartzen dira: materialak proiektu-guneraino garraiatzeko kostuak, biltegitratzea (materialak babesteko), administrazio-tramiteak (baimenak, aseguruak) eta mantentze-materialak (konponketak egiteko). Hauek proiektu bakoitzaren beharren arabera aldatzen dira.

Proiektuen Kostu Banaketa (Urteko)

Proiektu mota	Kopurua	Kostua/proiektu	Guztira
Presa txikia (10 m)	2	9.000 €	18.000 €
Presa ertaina (30 m)	2	21.000 €	42.000 €
Presa handia (50 m)	2	30.000 €	60.000 €
GUZTIRA	6		120.000 €

Taula honek proiektu mota bakoitzaren (presa txikia, ertaina, handia) kostua proiektu bakoitzeko eta guztira proiektu kopuruaren arabera erakusten du. Kostu totala proiektu bakoitzeko material, lan eta ekipamendu gastuen batura da.

Kostu Totalen Laburpena

Kostu mota	Zenbatekoa (€)	%
Kostu finkoak	9.500	5,43 %
Materialak	48.000	27,43 %
Lan-kostuak	90.000	51,43 %
Ekipamendua	13.000	7,43 %
Beste aldagaiak	7.500	4,29 %
GUZTIRA	175.000 €	100 %

Kostu totalak kategoria nagusietan banatzen dira (finkoak, materialak, lana, ekipamendua, beste aldagaiak) eta bakoitzak guztizkoaren barruan duen ehunekoa erakusten du. Lan-kostuak dira garrantzitsuenak (%51,43), eta materialek bigarren postua hartzen dute (%27,43).

Diru-sarrerak eta Emaitzak

Kontzeptua	Zenbatekoa (€)	Oharrak
Diru-sarrerak	222.000 €	6 proiektu + zerbitzuak
Kostu totalak	175.000 €	
EBITDA	47.000 €	
Zergak	≈ 30.000 €	Estimazioa
Emaiza garbia	17.000 €	

Azken taula honek enpresak urtean espero dituen diru-sarrerak (proiektu nagusiek eta zerbitzuek ekarritakoak) eta kostu totalak erakusten ditu. Horren arabera, EBITDA (amortizazio eta zerga aurreko irabazia) eta emaitza garbia (zergak kendu ondoren) kalkulatzen dira. Enpresak irabaziak lortzen ditu, baina zergek eragin handia dute emaitza garbian.

Lehenengo urteetan aurrekontu nahiko estua izango dugu, baina irabaziak lortu ahala langile gehiago kontratatuko ditugu. Ondoren, hornitzaileak eta mantentze-kontratuak berrituko ditugu epe ertain batera begira. Azkenik, epe luzera begira, ekipamenduan inbertituko dugu presen kalitatea handituz eta langileen baldintzak hobetzeko. Ahal den heinean, langileen soldatak ere igoko ditugu langileek motibazio gehiagorekin lan egiteko eta gure enpresan epe luzean lanean jarraitzeko.